

Behin,
estu ta larri ebilen baserritar bat soloan
atzera ta aurrera, izerdia eriola,*pot egin*beharrean...*nekatuta.*
—Lan hau gabera orduko amaitzearren emongo ñeukek baita...
Hori esan eta burutasun*gaizto*bat otu*jakon.

—...baita arima bera ere!

Eta TZAST! Hori esanaz batera deabrua agertu jakon

—Hemen ^{nozu}nök! —esanez,

—Lagunduko ^{deustatu}deustak lan hau amaitzen ala?

—Behingoan! erantzun eutsan.

Eta lanabesak*baserritarrari eskuetatik kendurik

bere erpen*edo artean hartu... Eta zirt-zart!

behingo baten amaitu eutsan dana.

—Ene! Buru-arinez jokatu ^{dot}jōat! —esan eban baserritarrak

egindakoaz damuturik.

Baina eginikoa... eginda!

—Hara! Arimea eskeini*^{deustat}deustat —esan eutsan deabruari—

baina damutu*egin ^{noz}nök eta ez ^{noztu}najoak emoten!

—Zer?! Damutu?

Eskeinia eskeinirik ^{dago}jagok, eta nik egin egin deustazat lanok.

—erantzun eutsan deabruak gaitzituta.*

—Halan da ere... Ez ^{noztu}najoak emoten, bada!

—Ezetz?

Ta hauxe otu jakon deabruari eta esan

—Bitik bat: edo arimea

edo San Martin-en hamabi egiak abestu.

Azpikeriz*agindu*eutsan hau, bete ezin izango ebalakoan.

—San Martin-en hamabi egiak?

—Bai, bai; horixe! Ezetz jakin...?

Ja, ja, ja! Zera jakin!

Baserritarra gomutatzen hasi zan

aitaitari entzundako abestiak.

Eta kantetan hasi zan:



hamabi

egiak



—“San Mar-tin e-^{esazu}zäik bat: Gu-re Jau-na be-ra ^{da}dök bat, be-rak sal-bau-ko gai-o-^{gaitu}zäk!”

—Denganinoa! —esan eutsan deabruak—

Danak ez ^{dozuz}dozäk jakingo, orregatino!*

—“San Martin, ^{esazu}esaik bi: Erromako altarak, bi!”

—Hirugarrena? —deabruak, jakingo ez dabelakoan.

—“San Martin, esaik hiru: Hiru Trinidad^{dira}deak, hiru!”

Zurt eginda...*eta larri egoan deabrua
baserritarrak huts noiz egingo dauan zain.

—“San Martin, esaik lau: Lau ebanjelistak, lau!

San Martin, esaik bost: Jesukristoren bost llagak,*bost!

San Martin, esaik sei: Sei zeruko izarrak, sei!

San Martin, esaik zazpi: Zazpi sakramentuak, zazpi!

San Martin, esaik zortzi: Zortzirik ^{dira}dozäk zeruak!

Eta baserritarra etenik egin*bage joian aurrera...

Eta deabrua arnasarik hartu bagerik, geldi.

—San Martin, esaik bederatzi: bederatzi ordenamentuak!

—San Martin, esaik hamar: Hamar mandamentuak!

—San Martin, esaik hamaika: Hamaika mille aingeruak!


—San Martin, esaik hamabi: Hamabi ordu santuak!

Eta danak esandakoan, bat gehiago oraindino...

—San Martin, esaik hamairu: Oilarrak j^{da}ot^{da}en jok munduan,
aingerutxuak zeruan!

Deabrua, buztana ankapean eroiala, joan zan hortik zehar!

Honelan salbatu eban baserritarrak bere arimea.



* eriola (erion) = manar
* pot egin = desfallecer
* ...beharrean = a punto de...

* nekatuta = kantzautar
* burutasun = idea
* gaizto = malvado

* otu = ocurrirsele
* lanabesak = lanerako tresnak
* erpe = garra

* eskeini = ofrecer
* damatu = arrepentirse
* gaitzitu = ofenderse, enojarse

* azpikeriz = maltzurkeriz
* agindu = prometer, ofrecer
* orregatino = a pesar de eso, con todo

* zurtz eginda = perplejo
* lлага = zaurria
* eten egin = interrumpir